



Arartekoaren 2018R-793-18 Ebazpena, 2018ko urriaren 31koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen diogu "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroko baja bat berrikus dezala.

Aurrekariak

1. Herritar baten kexa jaso zuen Arartekoak izapidetzeko, ez zegoelako ados Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan baja emateko hartutako erabakiarekin.
2. Bere kexa idazkian, kexagileak adierazi zuen sei bat urtez zegoela alta emanda etxebizitza babestuko eskatzaile gisa.

Ilido horretan, erregistroan alta emanda jarraitzeko eskatutako betekizunak baloratzeko asmoz, 2017ko azaroaren 27an, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek dokumentazio hau emateko eskatu zuten:

- *"2016ko ekitaldian kontzeptu guztiengatik jaso dituen diru-sarrera gordin guztiak egiaztatzea (langabezia, pentsioak, 10T, DBE, etab.)"*

Hamar egun balioduneko epea eman zion agiri horiek aurkezteko.

3. Azaroaren 29an, dokumentazio eskaeraren jakinarazpen pertsonala egin eta bi egunera, kexagileak Lanbidek egindako zenbait ziurtagiri aurkeztu zituen, eta haietan zehazten zen 2016. urte horretan diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jaso zituela.
4. Hala ere, kexagileari "Etxebide" Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja ematea erabaki zuen Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek. Ebazpenean adierazitako arrazoia hauxe da:

- *"Eskatutako agiriak epearen barruan ez aurkeztea."*

5. Hartutako erabakiarekin ados ez zegoenez, kexagileak gorako errekurtoa aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordeari.

Idazkian, kexagileak azaldu zuen dokumentazio eskaerari behar bezala erantzun zitzaiola 2016ko diru-sarrera gordinak egiaztatzen zituzten ziurtagiriak aurkeztuz.

Gainera, Correosek egindako ziurtagiri bat aurkeztu zuen; bertan, berariaz frogatzen zuen azaroaren 24an jakinarazpen pertsonala egiteko lehenengo ahalegina egin zela eta, azkenean, azaroaren 27an izan zuela administrazio egintzaren berri.





Horrenbestez, 2016an izandako diru-sarrerei lotutako dokumentazioa aurkeztean, 2018ko azaroaren 29an, erabilitako arrazoiketa eta izena emateko bere eskaerari baja emateko erabakia ez zituela ulertzen azaldu zuen.

6. Horri erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordeak errekurtsioa ezestea erabaki zuen eta kexagilearen bajarekin jarraitzea. Horretarako, honako hau argudiatu du:

- *"Vía recurso aporta la acreditación de las cantidades percibidas de Lanbide en concepto de 2016 en concepto de RGI y PCV, pero sigue sin aportar la documentación requerida relativa a las cantidades percibidas en concepto de prestación por desempleo de (...) por lo que la resolución es ajustada a Derecho y debe confirmarse."*

7. Azkenik, "Etxebide" Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja emateak eragin du Lanbideko zuzendari nagusiak etxebizitzarako prestazio osagarria etetea, hura jasotzeko eskatutako betekizunak betetzen ez dituelako.

8. Amaitzeko, kexagileak Arartekoari bikotekidearen lan-bizitza helarazi dio, bai eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (EEZP) egindako ziurtagiri negatibo bat ere; bertan, honako hau jasotzen da berariaz:

*"El Director Provincial del Servicio Público de Empleo Estatal de Araba/Álava, conforme consta en las bases de datos de este organismo, CERTIFICA, a los efectos oportunos, que (nombre de la pareja de la reclamante), con DNI (...), **no ha percibido cantidad alguna en concepto de prestación/subsidio por desempleo durante el ejercicio 2016.**"³*

9. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzak eskaera bat igorri zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Bere idazkian, Arartekoak kexagilearen gogoetak helarazi zituen eta txosten bat bidaltzeko eskatu; bertan azalduko ziren, Arabako Etxebizitzako lurralde ordezkariak "Etxebide" Etxebizitza Babestutako Eskatzaileen Erregistroan baja ematen zela ebazteko zer arrazoi juridiko zeuden.

Gainera, Arartekoak arrazoi zehatzak helarazteko eskatu zuen, hau da, Arabako Etxebizitzako lurralde ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordeak zergatik uste zuten kexagileak ez zuela epearen barnean aurkeztu berariaz eskatutako dokumentazioa. Alegia, *"2016ko ekitaldian kontzeptu guztiengatik jaso dituen diru-sarrera gordin guztiak."*

Azkenik, lankidetzak eskaerarekin batera, Arartekoak kexagilearen bikotekidearen lan-bizitzari buruzko argibideak igorri zituen honako hau egiaztatuz: bere

³ Letra lodia Arartekoak jarri du

bizikidetzta-unitateak ez zuela inoiz 2016. urtean prestaziorik edo langabeziako sorospenik jaso.

10. Eskaera horri erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren txosten bat jaso zen erakunde honen erregistroan. Horren bidez, sail horrek bere erabakia berretsi zuen.

Nolanahi ere, Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren abokatuak helarazi zuen kexagileak ez zituela aurkeztu 2016ko diru-sarrera gordinak egiaztatzeko agiri guztiak, eta egoera horrek baja emateko erabakia hartzea ekarri zuela.

11. Hortaz, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua) eta bai 2000ko abenduaren 7an Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak onetsitako Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2013ko martxoaren 14ko epaiak (C-415/11 Auzia) eta ondorengo erabaki judizialek⁴ agerian utzi dute botere publikoek premiaz jardun behar dutela dagozkien eskumen-eremuetan, ohiko etxebizitza izateari eta erabiltzeari lotutako oinarrizko eskubideak bermatzeko.

2. Babes publikoko etxebizitza bat legez okupatu ahal izateko, nahitaez eman behar da izena "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan.

Ildo horretan, Etxebizitzari buruzko Legeak (ekainaren 18ko 3/2015) 13. artikulua ezartzen du Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa sortuko dela, eta horrek ordeztuko duela edo, hala badagokio, jarraipena emango diola aurretik zegoen administrazio-erregistroari. Erregistro horren helburua izango da etxebizitza babestuen eskatzaileak ezagutzea; halaber, babes publikoko etxebizitzen esleipena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna izango da.

Bien bitartean, araudia garatuta ez dagoenez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa da etxebizitza babestuen eskatzaileen kudeaketa eta kontrola egiteko lana egin behar duena.

⁴ Besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaia (Sala Nagusia; gai metatuak: C-154/2015, C-307/2015 eta 08/2015).



3. Nolanahi ere, zenbait betekizun eta betebeharrak bete behar dira "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan alta emanda egoteko.

Horrenbestez, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko aginduaren II. kapituluak (aurrerantzean, 2012ko urriaren 15eko agindua) berariaz ezartzen du zein diren horiek eskuratzeko baldintza orokorrak eta zein izan behar den eskaera ororen eduki zehatza.

Gure kasuan interesatzen zaigunari dagokionez, agindu horren IV. kapituluak aurreikusten ditu izena emandako demanden baja emateko kausak.

Zehazki, 18.d) artikulua, erregistroan baja emateko arrazoen artean, hauxe agintzen du:

- *"Administrazioak eskatzaileei espresuki eskatutako agiriak epearen barruan ez aurkeztean ..."*

Gainera, azaldutakoa bezalako kasuetan, hau da, sailak uste duenean dokumentazioa ez dela epearen barnean aurkeztu, babes publikoko etxebizitza eskuratzeko eskaerari baja emango zaio eta antzintasuna galtzea ekarriko du. Halaber, 2012ko urriaren 15eko aginduaren 19. artikuluekin bat etorriz, neurri hau:

2.– Halaber, ondoren zehaztutako epe hauetan inskribatzeko debekua sortuko da:

a) Urtebetez, inskripzioa berritzen ez bada, beharrezko agiriak aurkezten ez badira, eta baldintzak gerora ez betetzeagatik inskripzioa ezeztatzen bada.

Are gehiago, kasu honetan, erregistroan baja emateak antzintasuna galtzea eta urtebetez izena ezin eman ahal izatea ekartzeaz gain, etxebizitzarako prestazio osagarria etetea ekarriko luke hasieran eta ziur asko prestazioa iraungitzea.

4. Adierazitako ondorio larriak aintzat hartuta, Arartekoa ez dago ados Arabako Etxebizitzako lurralde ordezkariak hasieran hartutako erabakiarekin, ondoren Etxebizitza sailburuordeak berretsi zuena ebazpen bidez; azken horrekin gorako errekurtsuari erantzun zitaion.

Lurralde ordezkariak nahiz sailburuordeak argudiatu dutenez, kexagileak ez zuen eskatutako dokumentazioa epearen barnean aurkeztu.

Nolanahi ere, Arartekoaren aburuz, alderdi hori ez da behar bezala egiaztatu ondoren arrazoituko duen moduan.





5. Bere ebazpenean, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek kexagilearen bizikidetz-unitateari baja ematea ebatzi zuen honako hau gertatu zela iritzita:

- *“Eskatutako agiriak epearen barruan ez aurkeztea.”*

Dena den, Arartekoak ikusi du kexagileak eskatutako dokumentazioa emandako epearen barnean aurkeztu zuela.

Zehazki, Correos lehenengo jakinarazpen pertsonala egiten ahalegindu zela azaroaren 24an. Hala ere, etxetik kanpo izatean, azaroaren 27ra arte ez zuten lortu Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak igorritako dokumentazioaren eskaera aurrez aurre ematea.

Azaroaren 29an bertan, emandako hamar egun balioduneko epearen barnean, kexagileak ziurtagiriak aurkeztu zituen, eta haietan egiaztatzen zen 2016an bizikidetz-unitateak izan zituen diru-sarrerak (diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria).

Hori guztia aintzat hartuta, Arartekoak uste du kexagileak esandako epean aurkeztu duela eskatutako dokumentazioa.

6. Aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, sailak aipatu du diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako diru-sarrerak baino ez zituela aurkeztu. Alde horretatik, sailak Arartekoari bidalitako erantzunean honako hau jakinarazi zen:

- *“Únicamente aportó documentación relativa a la RGI del ejercicio 2016, pero no acreditó la totalidad de los ingresos puesto que en su vida laboral constaba dado de alta en dicho ejercicio como perceptor de subsidio de desempleo. Analizada su vida laboral se verifica que consta fecha de alta pero no fecha de baja, por lo que no consta que dicho ingreso esté extinguido como si figura en periodos anteriores de su vida laboral.”*

Baieztapen hori sailak ez du behar bezala egiaztatu. Aitzitik, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak 2018ko apirilaren 26an ziurtatu zuen kexagilearen bikotekideak ez zuela prestaziorik edo langabezia-sorospenik jaso 2016 urte osoan.

Nolanahi ere, kexagileak hasieran aurkeztutako lan-bizitza aztertzeko aukera izan zuen sailak eta ondoren Arartekoak bidali zuen. Izan ere, Arartekoak ikusi du kexagileak aurkeztutako lan-bizitzan (bidaltze data: 2018ko apirilaren 18.a) jasotzen dela langabezia-sorospenaren alta eguna 2011ko abenduaren 1a izan zela. Beraz, Arartekoak oso zail ikusten du alta eguna 2011ko abendua zuen langabezia-sorospen bat 2016. urtera arte ordaintzen jarraitu denik.

Arartekoaren aburuz, sortutako zalantzari lotuta, Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak kexagileari informazio argigarria eskatu ahal izan zion “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan baja ebatzi aurretik.

7. Espedientean dagoen dokumentazioa aztertu ondoren egiaztatu ahal izan da, Arabako Etxebizitzako lurralde ordezkariek hau eskatu zuela:” 2016ko ekitaldian





kontzeptu guztiengatik jaso dituen diru-sarrera gordin guztiak egiaztatzea” deskripzio edo orientazio modura, haiek izan zezaketen jatorria ezarriz. Hau da: *“(langabezia, pentsioak, 10T, diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta abar).”*

Ikus daitekeenez, idazkiak 2016an lortutako diru-sarrera gordinak egiaztatzen dituen dokumentazioa eskatzen du soilik. Horretarako, diru-sarrera horien jatorria zein izan den jakiteko erreferentzia batzuk sartzen dira.

Alderdi horri dagokionez, Arartekoak uste du zerrenda horren asmoa ez dela urteko diru-sarrera gordinen jatorria zehatz-mehatz zerrendatzea. Alderantziz, “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emandako pertsonak orientatzeko balioa izan dezan nahi du bere diru-sarrerak egiaztatzeko orduan.

Arrazoi hori dela-eta, kexagileak 2016ko diru-sarrerak egiaztatzen zituzten ziurtagiriak baino ez zituen aurkeztu. Izan ere, dokumentazioa eskatzeko idazkian ziurtagiri negatiborik aurkezteko ez zen inoiz berariaz eskatu.

Arartekoak dioenez, desproporzionatua da kexagileak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu ez zuela irizteagatik “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan baja ebaztea. Jardunbide hori baieztatuz gero, betebeharrak bat “ex novo” sortzea ekarriko luke, hau da, azken zergaldiko erregistroan izena emandako bizikidetzaren unitatearekin harremana izandako entitate edo erakunde bezain beste ziurtagiri negatibo aurkeztu behar izatea.

Laburbilduz, Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak dokumentazioa eskatzeko egindako eskaera ikusirik, kexagileak ez zuen beharrezkoa ikusi diru-sarrerarik ez dagoela egiaztatzen zuen ziurtagiria aurkeztea. Hain zuzen, iritzi zuelako ordezkararen asmoa 2016an zenbat diru-sarrera gordin jaso zituen jakitea zela.

8. Finean, Arartekoaren aburuz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak igorritako dokumentazio-eskaeratik ezin da ondorioztatu, inolaz ere, kexagileak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren diru-sarreraren ziurtagiri negatiboa aurkezteko betebeharra duenik.

Beraz, Arartekoak uste du sailak zehatzago adierazi behar zuela zein zen aurkeztu beharreko dokumentazioa, baldin eta oinarritzat zela uste bazuen “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda jarraitzeko erabakia hartzeko.

Nolanahi ere, arrazoizko edozein zalantza ikusita, sailak beste dokumentazio eskaera bat egin ahal izan zuen edo frogaldi bat ireki, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 77. artikuluan agindutakoarekin bat etorriz (aurrerantzean 39/2015 Legea). Hori guztia, kexagilearen nahiz haren bizikidetzaren unitatearen babes publikoko etxebizitza eskaerari baja emateko erabakia hartu aurretik.

9. Azkenik, Arartekoak gogora ekarri nahi du, 39/2015 Legearen 53.1.f) artikuluaekin bat etorriz, *“...administrazio-prozedura batean interesdun direnek honako eskubide hauek dituzte:*





- *Informazioa eta aholkuak lortzea indarrean dauden xedapenen arabera proiektu, jarduketa edo eskaerak egitean bete beharreko betekizun juridiko eta teknikoei buruz.*

Gainera, 39/2015 Legearen 53.1.d) artikulua eskubide hau aurreikusten du:

“Prozedurari aplikatzekoak diren arauetan eskatzen ez den datu eta dokumenturik ez aurkeztu behar izatea, administrazio publikoen esku badaude jada edo haiek prestatuak baldin badira”

Azaldutako guztia aintzat hartuta, Arartekoak ez du honetarako lege-eskakizunik ikusten: “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emandako pertsonen diru-sarrerak kalkulatzeko ezertarako balio ez duten ziurtagiriak lortzea.

10. Laburbilduz, Arartekoak egiaztatu du kexagileari “Etxebide” Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja emateko behar besteko arrazoirik ez dagoela. Izan ere, erakunde horrek ikusi du dokumentazio eskaerari epearen barnean erantzun zitzaiola eta 2016an jasotako diru-sarrerak egiaztatzen zituzten ziurtagiriak aurkeztu zituela.

Hori guztia dela-eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau igorri du:

GOMENDIOA

Adierazitako guztia aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak berriz azter dezala “Etxebide” Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan kexagileari baja emateko ebatzen duen erabakia.

Egindako gogoetak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak bere errekerimenduei erantzunez aurkeztu behar den dokumentazioa zehaztu dezala.

Nolanahi ere, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eskatzen dio beste errekerimendu bat egin dezala aurkeztutako dokumentazioa behar bestekoa ez dela uste duenean, edo frogaldi bat berme guztiekin ireki dezala behin honako hau baloratu ondoren: egoera hori esanguratsua dela prozedura behar bezala bideratzeko.

